

## **TXOSTENA, HAUTESKUNDE BATZORDEARENA, 2024ko AZAROAN ERREKTOREA AUKERATZEKO PROZESUAN JASOTAKO KONTSULTA ETA/EDO KEXEI BURUZKOA.**

Txosten honen helburua da etorkizuneko hauteskunde deialdietarako gomendioak egitea eta jasotako kontsulta eta/edo kexak argitzea.

LEHENA.- Gogoeta egunean nahiz hauteskunderen egunean bertan, unibertsitateko kideek ezin dute hautagai baten aldeko botoa eskatu era inplizituan. Egun horietan, parte hartzera deitzera mugatu beharra dago.

Jakina, sare sozialen edota komunikabideen bitartez ere ezin da botorik eskatu. Hori bete ezean, hau da, egun horietan komunikabideen aurrean hautagai jakin baten aldeko adierazpenik egin bada, ulertuko da indarreko arautegia urratu egin dela.

Hori horrela, komeni da etorkizunean etorriko diren hauteskundeetan Hauteskunde Batzordea komunikabideekin harremanetan jar dadila, eta adieraz diezaiela udal edo erkidego mailako hauteskundeetako irizpide bera dagokiola unibertsitateari ere, gogoeta egunean edo hauteskunde egunari dagokienean.

BIGARRENA.- Sareetan edo WhatsApp edo antzeko aplikazioen bidez argitaratu edo bidalitako mezuetan ez da errealitatearekin bat ez datorren informaziorik eman behar. Horrelako mezuak bidaltzen edo argitaratzen dituztenek hautagaitza batekin lotura zuzena badute, edukien legezotasuna gorabehera, gure Kode Etikoan jasotako oinarrizko printzipio etikoak urratzea eragingo du.

Errealitatearekin bat ez datozen mezuak bidaltzen edo argitaratzen dituztenek hautagaitza batekin lotura zuzenik ez badute, gure Kode Etikoan jasotako oinarrizko printzipio etikoak urratzen ariko dira berdin-berdin, nahiz eta jokabide hori ez den

aurreko kasua bezain larria izango. Edonola ere, hautagaitza bateko kideek, frogarik gabe, horrela jardun izana leporatzen badiote beste pertsona bati, baieztapen iraingarriak edo kalumniak egitea egotziko zaie. Era berean, hautagaitza batek, mezu horien egiletza zuzenean besteari egotzi ez arren, probarik gabe iradokitzen badu beste hautagaitzako kideek egindakoak izan litezkeela, oinarrizko printzipio etikoen kontra egiten ariko da, nahiz eta, akaso, baieztapen horiek legez kanpokoak ez izan.

**HIRUGARRENA.-** Hautagaitza bateko kideek profil ezkutuetatik bidaltzen edo argitaratzen badituzte mezuak, oinarrizko printzipio etikoak urratzen ariko dira, mezu horien edukia legez kontrakoa izan zein ez.

**LAUGARRENA.-** Hautagaitza taldeek hauteskundeetarako egiten duten publizitateak hasiera-hasieratik erakutsi behar du hauteskunde publizitatea dela. Hau da, sormen maila eta publikoa erakartzeko gaitasuna edozein direla ere, argi eta garbi ikusi behar da hauteskunde publizitatea dela. Hortaz, hartzaileen atentzioa erakartzeko, ezinbestean utzi beharko da argi, publizitaterako estrategia edozein delarik ere, hauteskundeei buruzko informazioa ematea izango dela edukiaren azken helburua.

**BOSGARRENA.-** Ikastegietan eta/edo campusetan kanpaina egiteko espazioak erraztuko zaizkie hautagaiei, baldin eta organo eskudunari aurretiaz eskatu bazaio horiek erabiltzeko baimena eta egintzaren inpaktuaren berri eman bazaio. Horrelakoetan, aldeztatik jakinarazi beharko zaio megafonoak erabiltzeko asmorik duten ala ez, edota espazio horien ohiko funtzionamendua alda dezakeen beste edozein tresna erabiliko den.

**SEIGARRENA.-** Azaroaren 4an, ikasgeletan hautagaien aldeko publizitatea egiteari buruzko kontsulta bat bidali zuen

Bengoetxearen taldeak Idazkaritza Nagusira. Kontsulta posta elektronikoz bidez bidali zen, eta bide beretik erantzun zitzaien. Idazkaritza Nagusiko teknikarien artean kontsulta egin ondoren, eta arautegian horren inguruko ezer jasotzen ez dela ikusita, ondorioztatu zen irakasleek ez dutela zertan klasea eten hautagaitza batek kanpaina egin dezan. Halaxe jakinarazi zitzaizkien hautagaitzei. Baina, bestelako kontu bat da irakasleekin hitz egitea eta haiek, borondatez, klasearen zati bat hautagaitzari lagatzea; izan ere, horrela egiten da hauteskundeekin zerikusirik ez duten beste hainbat gaiekin ere. Beraz, arautegian hori egitea berariaz debekatuta ez dagoela kontuan hartuta, eta hutsune hori betetze aldera, zentzuzkoena da hauteskunde kanpainaren mesedetan jardutea.

Hala ere, komeni da gai hau argitzea; beste konponbide bat lehenesten bada, arautegian jasota gera dadila edo, besterik gabe, Hauteskunde Batzordeak honen gaineko informazioa eman diezaiela hautagaiei hauteskunde kanpainaren hasieran.

Era berean, gaizki-ulertuak saihesteko, komeni da datozen hauteskunde deialdietako gidaliburuetan berariaz adieraztea ezen, norbaitek Hauteskunde Batzorde Nagusiak gai jakin bat jorratzea nahi badu, berariaz eskatu beharko duela.

ZAZPIGARRENA.- Komeni da hauteskundeen gidaliburuetan argi eta garbi adieraztea ezen, hauteskundeekin lotura duten jardueretarako baliabide kolektiboak erabili ahal izateko (posta bidalketa masiboa, informazioa era masiboa zabaltzea, inkestetan parte hartzeko gonbitak bidaltzea, etab.), ezinbestekoa dela alde aurretik Hauteskunde Batzorde Nagusiaren baimena izatea.

Bereziki, eskuliburu horietan Hauteskunde Lege Orokorraren 50. 2 artikuluan egindako aurreikuspena sartzea gomendatzen da: "*desde la convocatoria de las elecciones y hasta la celebración de las mismas queda prohibido cualquier acto organizado o financiado, directa o indirectamente, por los poderes públicos que contenga alusiones a las realizaciones o a los logros obtenidos*". Hau da, epe horretan ezin izango dira bitarteko kolektiboak erabili lorpenak nabarmentzeko.

Benetan eskainitako zerbitzuei (ez zerbitzu-promesei) edo benetan egindako deialdiei (ez promesei edo etorkizuneko deialdiei buruzko iragarkiei) buruzko berritasunen berri emateko baino ezingo dira erabili.

ZORTZIGARRENA.- Azkenik, gogorarazi behar da Gobernu Kontseiluak ezartzen dituela botoa emateko modalitateak; halaxe egin zuen errektorea aukeratzeko hauteskunde deialdia argitaratu zuenean (irailaren 26ko erabakia). Ezin ahaztu, halaber, Hauteskunde Batzorde Nagusiak ez duela eskumenik deialdian ezarritakoa aldatzeko eta boto modalitate berriak sortzeko. Oinarri horiek gogora ekarri ziren 2024ko urriaren 22ko bileran (<https://www.ehu.eus/documents/d/idazkaritza-nagusia/akta-22-de-octubre>).

Hori horrela, etorkizunean egiten diren hauteskunde deialdietarako, komenigarria izango da organo eskudunari (Gobernu Kontseiluari, alegia) planteatzea zein den botoa emateko modurik egokiena, betiere, deialdiaren gaineko erabakia eman baino lehen.